

2025eko EUSKARAZ BIZI EGUNEKO MANIFESTUA

“Ze arraroa euskararik gabe... Nafarroa” zioen Bittor Aiapek. Berak abestutako hitzak moldatuta osatu dugu aurtengo Euskaraz bizi eguneko leloa, edota agian, aurtengo “live euskara day” esan behar genuke, garaikidetasunaren izenean, edo modernoak izateko, edo “gazte” hizkerarekin bat etortzeko edota “guztiek” uler gaitzaten, inklusiboak izan gaitezen edo... Zerbaiten izenean ari gara, gure izena eta izana baztertzen dugula konturatu gabe.

Herri egiten gaituen hizkuntzak batu gaitu gaur hemen, urtez urte egiten dugun moduan. ~~uda~~ amaitzen ari zaigula xamurtzeko balio izan ohi du, eta, era berean, oporraldien ostean, lagunekin elkartu eta egindako plan eta bidaiei berri emateko. Eta udan bidaia bat edo beste egiteko probesteko aukera izan dugunoi, ziur, nongoak garen galdetu digutela aurren ere; euskaldunak garela esanaz erantzun ohi dugu halakoetan eta ezagutzen ez gaituzten lekuetan, Euskal Herri bat badela esanaz aurkezten dugu gure burua.

Baina zerk egiten gaitu euskaldun? Kontziente al gara zer den, zer ordezkatzeko duen eta zein balio duen euskarak?

Bazkari honen bueltan gaudenon artean, askotariko esperientziak biltzen ditugu. Izan bizitzea suertatu zaigun garaia, izan gure edota gure senitartekoen jatorriagatik, izan gure baliabide ekonomikoengatik...

Ba al dakite hemen diren gazteenek, frankismo garaia bizi izan zuten herritar askok, errepresioaren ondorioz, euskara galdu zutela? Eta, kontziente al gara, kolpeak jasoz, berreskuratzeko egindako lanagatik ez balitz, gaur guk ere ez genukeela euskararik izango?

Kontziente al gara atzetik datozenak direla euskarak biziraun dezan motore eta gasolina, eta gu, haien erreferenteak zein transmisio lana egin behar dugunak?

Kontziente al gara euskara hizkuntza bakartua dela, ahadeitasunik gabea, mundo mailako bitxiakeria eder bat, betiko galtze arrisku iraunkorrean bizi dena? Pentsatzen jarri al gara sekula gutako bakoitza garela haren zaindari eta berme?

Eta euskara ikasteko ahalegina egiten duzuen herritar hauek guztiok, ba al dakizue zuetako bakoitza euskararen arnagune bilakatzen zaretela euskara ikasi eta zuen bizitzeko hizkuntza bilakatzen duzuen bakoitzean?

Zentzu honetan, egun, munduan bizi dugun eta Euskal Herrian ere gero eta argiagoa den migrazioaren aferaren gaineko kontzientzia hartzea ere badagokigu, eta errealitate honen baitan eragitea. Izan ere, herri honen hizkuntza eta kulturaren transmisioari dagokienez, zein da kudeatzen ari garen eskaintza? Euskararen beharra eta garrantzia benetakoa al da? Non dago euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzeko bidea? Zein laguntza eta informazio ematen ari gatzaiakio datorrenari? Ba al da euskararen ikaskuntza ez ezik, erabilera bermatzeko politikarik? Ez ote gara aniztasunaren aitzakian ezkututzen ari, benetako uztarketa gauatzeko moduak planteatu beharrean? Erronka izugarriaren aurrean gaude eta ez gara asmatzen ari. Horregatik, galdera hauek egin behar genizkioke geure buruari: zer egin nahi dugu? Nola jokatu nahi dugu? Zein da lortu nahi dugun emaitza? Gure ardurak kudeatzeko prest gaude edota pilota besteen teilatura bota eta hatzaz seinalatzen geratuko gara?

“Ze arraroa euskararik gabe... Nafarroa” abesten zuen Bittor Aiapek. Gaur, galdera bera ekarri dugu gurera moldatuta, hemen batu garen guztion artean partekatu eta pentsarazteko. Izan ere, ze arraoi gara euskararik gabe euskaldunok? Ze arraoi da euskararik gabeko Zarautz? Ez al da arraroa?

Norberak du ardura bai, baina baita instituzioek ere. Aurten ere salatu eta exijitzen dugu instituzioek ere badutela ardura eta inbertitu egin behar dute,

- Euskara herritar ororen esku egon dadin, doakotasuna eskatzen dugu.

- Euskaraz bizi den herria izan ahal izateko, herriko ekosistema euskaldundu behar da: komertzio, azoka, ostalaritza, industria, kultur eskaintza, aisia... Euskara lehenestek ezinbesteko izan behar du. Ez dugu *bakery* beharrik, okindegiak ditugu. Ez ditugu *rebajak*, beherapenak baizik. Ze arraoi ari gara egiten?

- Udal eskaintza euskaraz gauzatu dadin eskatzen dugu, euskal kultura sustatuz, eta ez makrojaialdi, atzerriko enpresa edota *basque* titulupeko eskaintzengatik ordezkatzuz.

- Euskara lehen lerroan eta zeharlerro gisa kokatzen duten politika sendoak behar ditugu. Zer esanik ez, azken urteetan jasotzen ari garen oldarraldi judizialaren aurrean, bertako legeak ere errespetatzen ez direnean.

Debekuak, legeak, gorrotoa, garrantzia falta... Urte luzez gaingiditu ditugu, eta ezjakintasunari aurre egiteko tresna ugari ditugu, baita borondatea ere. Orain, euskararen balioa, euskaraz bizitzeko eskubidea eta desira, euskara ikasteko, hitz egiteko eta maitatzeko beharrezana transmititzea dagokigu eta horretarako bidea gure egunerokoan, herrian, euskaraz egitea da.

- Dakigunon artean, egin dezagun euskaraz.

- Ikasten dabilenari pazientziak eta errespetuz lagundu diezaiozun.

- Ez dakienari lagun diezaiozun ulertzen euskara, hitz errazekin, eskuekin lagunduta, mantso eta behar bestetan errepikatuz “bi zurito, mesedez, eskerrik asko”.

- Beharrezanik ikusten ez duenari, azaldu diezaiozun zergatik den beharrezkoa.

- Eta ezezkoan tematu denarekin, tematu gaitzeen gu baiezkoan.

Beste abesti bati hitzak lapurtuz “etxean eta kalean, berdin-berdin jolasean, eskolan, lanean, borrokan eta pakean dakitenek erabiliz ez dakitenek ikasiz, herri bat osaturik euskaraz nahi dugu bizi”.

Une batez, parentesia irekiz, egunero-egunero, ahoz aho, plazaz plaza, une oro eta edonon ezinbestean errepikatu dugun aldarria egin nahi dugu, Palestinako herria jasaten ari den genozidioa salatzeke, hain zuzen ere. Isiltasuna onartezina delako, Palestina libre eta bizirik nahi dugu, genozidio ukaezin honekin amaitu behar dugu eta argi adierazi sionistek ez dutela lekurik ez hemen ez inon!